

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.: 16011P-49/2016)

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesduna: Abdelmajid Bkhit

Erabaki hau ezin izan zaio interesdunari jakinarazi, orain duen helbidea ezezaguna delako. Beraz, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko, aurretik eta aukeran ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratu ostean, iragarki hau BOEn argitaratuz jakinarazten zaio alkatearen 16/255P Ebazpena interesdunari. Hona hemen, hitzez hitz:

“2016ko abuztuaren 31n, ebazpena eman zen (16/255P Dekretua). Haren edukia, zuri dago-kizunez, hau da:

M. S. jaunak/andreak, Landako kaleko 35 zenbakiko 2. ezk. etxebizitzaren alokairu kontra-tuaren titularrak, 2016ko abuztuaren 22an aurkeztutako idazkiaren bidez, udalari jakinarazi dio Abdelmajid Bkhit biztanleen udal erroldan arauz kanpo erroldatuta dagoela, pertsona hori ez baita aipatutako etxean bizi. Hortaz, ez ditu betetzen Biztanle eta Lurralde Mugen Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan xedatutakoak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretua-ren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Ikusirik udaltzainek horretarako egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi adierazitako helbide horretan.

Bat etorritz Arautegi horren 72. artikuluekin eta Estatistikako Institutu Nazionalaren le-hendakariak eta Eskumenak Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Koordinatzeko zuzendari nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean elkarrekin eman zuten Ebazpenarekin, zeinaren bidez jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei udal erroldaren kudeaketari buruz, eta bat etorritz zehazki arauz kanpoko inskripzioen bajei buruzko idatz zatiarekin eta aplikazio orokor eta bidezkoa dagokion gainerako legediarekin, alkate honek, legez esleituak dituen ahalmenak erabiliz, honako hau xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta espedientea abiaraztea ofizioz, ondoren aipatzen den pertsona honi baja emateko Amurrioko Udalaren biztanle erroldan, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik:

IZEN-ABIZENAK:	AGIRIA
Abdelmajid Bkhit	X-3527580-R

Bigarrena. - Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean alegatu eta egoki jotzen dituen agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo erroldan duen egoera erregularizatzeko, udal honi jakinaraziz helbidea aldatu duela edo egun zein uda-lerritan bizi den.

Alkateordeak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2016ko abuztuaren 31. Behin-behineko idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Alkateordearen eta behin-behineko idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.
Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrio, 2016ko irailaren 16a
Alkate-lehendakaria
JOSUNE IRABIEN MARIGORTA